

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Egunaren kontzertu nagusirako sarrerak eros daitezke oraindik, Baluarten

*Gazte-talentua Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren Orkestrarekin eta Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin arituko da, errezitaldi batean, hurrengo astelehenean, Baluarten*

Ostirala, 2018.eko azaroak 30

Nafarroako Egunaren kontzertu nagusirako sarrerak eros daitezke oraindik. Abenduaren 3an izango hitzordua, Baluarten, eta elkarrekin arituko dira Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren Orkestra eta Iruñeko Abesbatza Ganbera. Sarrerak Baluarten daude salgai, 6 eta 12 euro bitartean [web](#)



Nafarroako Egunaren kontzertuan parte hartuko duten ikasleak, entseguaren atsedenaldira.

Aipatu behar da kontzerturako 600 sarrera saldu direla dagoeneko, eta jende gehiago animatzeko xedez, publizitate-kanpaina bat abiarazi dela bai prentsan bai sare sozialetan.

Kontzertua Manuel Hernández Silvak Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendariak zuzenduko du, eta Manuel Escauriaza tronpa-jotzaile bakarlariak, 23 urteko gazteak, interpretatuko du, Orkestrak eta Baluarte Fundazioak Nafarroako gazte-talentuaren alde egin dute apustuaren barruan.

## Nafarroako Egunaren kontzertuaren aurretiazko entsegua

Gaur goizean, Atarrabiako Kultur Etxean, Nafarroako Egunaren kontzertuaren aurretiazko entsegua egin da, azkenekoa. Atsedendian, Manuel Hernández Silvak Orkestra Sinfonikoaren zuzendariak honela esan du: "Nafarroaren

Eguna ospatzea, horrelako kontzertu nagusiarekin zorionak ematekoa da, sinfonia handi hau egiten ari baitgara eta gainera, gure hiri honetako Goi Mailako Kontserbatorioko, ikasle gazte sentikorrek parte hartu dute". Honekin batera, gaineratu du, "horrelako emanaldiekin, "gure balore nafarrak musikaren bidez nabarmentzen dira, arte unibertsala baita, beraz, niretzako kontzertu hau zuzentzea ohorea da".

David Gálvezek Iruñeko Ganbera Abesbatzako zuzendariak, bere aldetik, honakoa esan du: "Kontzertu hau Nafarroako egun handian, musika-entitate ezberdinak elkartzeko modua da, horregatik, bertan parte hartzea ohorea da eta harrera ona izatea espero dugu".

Azkenik, Juan María Ruizek Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren ikasketa-buruaren hitzen arabera, "Kontserbatorioko ikasleentzako kontzertu honek lan munduan sartzea suposatzen du. Halaber, ilusio handia dute Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin jotzeko".

### Formatu handiko kontzertua

Nafarroako Egunaren kontzertua Nafarroako "Erresumako Gortearen Sartzerako Martxa" ereserkiaren interpretazioarekin hasiko da, eta programa anitza bi zatitan eskainiko digu. Lehenengo zatia Nafarroako Fernando Remacha konpositorearen "Siete canciones vascas obraren Leihorik leihoren" David Gálvezen egokitzapenarekin hasiko da. Gero, Abesbatzak "Tirana del trípili" interpretatuko du, Blas de Laserna corellarraren tonadilla, Remachak eta Gálvezek egokitu dutena. Lehenengo zatia Manuel Escauriaza tronpeta-jolearen Mozarten "4. zk., Mi bemol maiorren K495" interpretazioarekin amaituko da.

Kontzertuaren bigarren zatian Shostakovitchen "5. sinfonia nagusituko da, RE minorren, Opus 47". "Emozio eta sentimendu oparoko konposizioa" dela iritzi zaio.

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA TALENTU GAZTEAREKIN  
ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA CON EL TALENTO JOVEN  
CONCIERTO DEL DÍA DE NAVARRA  
BALUARTE ABENDUAREN 3 DE DICIEMBRE, 19:00 h  
SARRERAK: ENTRADAS 6 - 12 €  
Manuel Hernández-Silva, zuzendaria / director

Nafarroaren Egunaren kontzertu nagusia iragartzen duen kartelak.